

Hiazinto Fernandorena, beti euskaraz bizitzeko ereduak asmatzen, sortzen eta garatzen

ANDONI SARRIEGI ESKISABEL

Ni ez naiz ziurrenik Hiazintoz idazteko pertsonarik aproposena, baina, EIZIE-ko bazkide izanda eskaera egin zaidanez, ukatzeko arrazoirik ere ez dut; beraz, saiatuko naiz nik ezagutu nuen heinean zerbait azaltzen. Zer gutxiagorik arlo batean baino gehiagotan itzultzaile-kide eta batzuetan euskalgintzako kide ere izandakoari eskaintzeko. Gogoratu beharra dago, gainera, EIZIEk ohorezko bazkide izendatu zuela 2002an, beste itzultzaile batzuekin batera, eta elkarteak argitaratutako *Itzulpen Antologia III* liburuan tokia eskaini ziola, frantsesetik itzulitako liburu bateko zati bat argitaratuz, «Zuberoa Aro Modernoan» izenburupean. Beraz, itzultzaile moduan soil-soilik ere artikulu bat ondo merezia duen pertsona da. Baina On Jazinto, Jaxinto edo Hiazinto ez zen itzultzaile soilik izan.

Hiazinto Fernandorena Setien (Urnieta, 1930-06-29) 2017ko urtarrilaren 7an hil zen, larunbatean, 86 urte zituela. Goian bego! Hurrengo egun osoan, beilatokian egon zen gorpua, eta hileta-elizkizuna astelehenean egin zen, hilaren 9an, Urnietako Mikel Goiaingeruaren elizan, eliza jendez bete-betea zela. Hain zuzen ere, hiletara joanda jabetu nintzen haren biografiarekin argitaratutako liburuaz, eliz atarian jarritako mahaian eduki baitzituzten azken aleak lazkaotar fin batzuek, hartu nahi zituztenei banatzeko. Damurik, nik ez nuen lehenago liburuaren berririk, baina egile prestu batzuek egin eta argitaratua zuten, 2015ean (Aranburu 2015).

Hiazintoren biografia

Pertsonaz eta haren lanaz informazio zehatza nahi lukeenak, zorionez, badu non irakurri, eta ni ez naiz hasiko hemen dagoneko ederki idatzita eta adierazita daudenak

berriro aipatzen (hainbat datu hartzeko erabili ditudan arren), baina, nire xumetasunetik eta nire baztertxotik zerbait esatekotan, izenburuan jarritakoa esango nuke hartaz: *beti euskaraz bizitzeko ereduak asmatzen, sortzen eta garatzen* jardun zuela. Zerbaite-

tan eredu izatekotan, nire ustez, horretan izan zen, eta ildo horretan nabarmendu zen, beste hainbat jardunen artean, bereziki idaztea, itzultzea eta argitaratzea zaila zen garai batean, baina betiere euskaldunok euskaraz bizitzeko baliabideak sortzea helburu.

Aipatutako liburuan esaten denez, 1959an etorri zen Lazkaoko San Migel parrokiara, apaiz izendatuta. Urte haiek oso interesgarriak izan ziren Eliza katolikoarentzat. 1959tik 1965era bitartean egin zen Vatikanoko II. Kontzilioa, Erroman, Joan XXIII.a Aita Santuak deituta (Aranburu 2015: 53. or. eta ondorengoak). Kontzilio hark aldaketak eragin zituen Eliza katolikoaren jardunean; nabarmenena, beharbada, elizkizunak herri-hizkuntzetan egitea eta apaizek elizkizunak herritarrei begira egitea. Baina bestelakorik ere ekarri zuen, eta aldaketa handiagoak ere ekartzeko bidean izan ginen, baina, azkenean, erdibidean galdu, eta ez ziren gauzatu. Aldi berean, Joan XXIII.a Aita Santuaren beraren *Pacem in terris* [Bakea lurraldeetan] entziklika sonatua kalerratu zen (1963-04-11n). Euskarazko itzulpenak ere berehala ikusi zuen argia, eta eragin handia izan zuen euskaldunen mundutxoan, Euskal Herriaren gisako nazioen eta herritarren eskubideez ere baziharduelako. Hiazinto bete-betean harrapatu zuen giro hark, eta ildo hari jarraitzen ere ahalegindu zen gero. Tamalez, hegoak gauza askori moztu zitzaizkien gero, eta gelditu zena gelditu zen. Orduan, Don Jazinto Fernandez Setien Lazkaora iritsi zen, eta, Lazkaoko herrigunetik kilometro batera jaio eta bizi izan naizenez beti, Lazkaoko Don Jazinto apaiz gisa ezagutu nuen nik ere, besterik gabe, aro hartan eta zehazki ez dakidan urteren ba-

metik aurrera noski. Baina, aurrez aurre eta pertsona gisa, lehenengo harremana 1968an izan nuen berarekin, Euskaltzaindiak Rikardo Arregi zenaren eta beste batzuen eraginez antolatutako alfabetatze-kanpaina zela-eta.

Euskaltzaindiak antolatutako alfabetatze-kanpaina

1966-1967 ikasturtearen hasieran, Jon Oñatibiak bere *Método de euskera radiofónico* argitaratu berri hura nola erabili irakatsi zigun hainbat ikasle euskaltzaleri, Donostian, eta erdaldunei euskalduntze-ikastaroak ematen hasi ginen. Gipuzkoan zehar eta Goierriin bertan ere (gero, Bizkaian eta Lapurdin ere bai), antzeko ikastaroak eman zituen, eta erdaldunen euskalduntzea abian jarri zen. 1967ko udan, ikasketak bukatuta herrira itzuli eta lanean hastean, Beasaingo Oargui irakasle-taldeko partaide izan nintzen, euskalduntze-eskolak emateko, baina hizkuntzaren ezagutza etxeko sukaldekoa eta elizako libururen batzuen besterik ez nuen, eta behar handia sentitzen nuen, euskalduntze-lanetan zebiltzan gainerakoek bezalaxe, hizkuntzaren gorabeherak itxuraz ikasteko.

Egoera hartan iritsi zen 1968ko alfabetatze-kanpaina hura, eta euskalduntze-lanetan *irakasle* genbiltzanon hizkuntza-beharrak asetzen hasteko bederen balio izan zuen. Hala ere, ez asetzeko adina, oso oinarritzko gauzak soilik ikasi baikenituen; izan ere, euskara batuaren proiektua artean has-tapenetan zenez, ortografiako azken erabakiak berak ere hartu gabe zeuden. Nolanahi ere, hasiera behintzat eman genion geure hizkuntzaren ikasketa-bideari, eta geroago

etengabe ikasten jarraitzeko oinarri izan genuen hura. Ez da gutxi.

Beraz, esan bezala, 1968ko alfabetatze-kanpainan, Goierriko irakasleak hizkuntza-alfabetatzean trebatzeko ikastaroa Beasainen eman zen, martxoan eta apirilean, La Salle ikastetxean (Sarriegi 2000: 32). Ikastaroaren amaieran, On Manuel Lekuona euskaltzainburuak berak banatu zituen diplomak. Nik ikastaro hartan ezagutu nuen hurbiletik orduko On Jazinto edo, lagunartean deitu ohi zioten bezala, Jaxinto. Ikastaro hartako gure irakasle nagusiak Lazkaoko Joxe Mari Aranburu eta Jaxinto Fernandez Setien bera izan ziren, Joxe Manuel Irizarrekin batera; alegia, 1962tik 1964ra, Lazkaoko beneditarretan, goizeko 7:30ean emandako ikastaroetan ikasten jardundakoak (Sarriegi 2000: 18). Egia esateko, garai hartan, izugarritzko maila zuten maisuak ziren guretzat.

Ikasitako gauza apurrekin, Goierriko herri askotan eman genituen hilabeteko edo bi hilabeteko alfabetatze-eskolak, eta, nire kasuan, Beasainen jardun nuen, bai 1968an bertan, baita hurrengo urteetan ere. Zoriturrez, oso euskaldun gutxi kezkatu zen garai hartan oinarrizko gai haiek ikasteaz, eta, Beasainen behintzat, ikasle-taldetxoren bat edo beste soilik izan genuen ekitaldi bakoitzean. Proporzioan, askoz ere lan gehiago egin genuen euskalduntze-taldeekin, urtero eta ikasturte osoan zehar jardun baikenuen handik aurrera, etenik gabe.

Batasunaren kutxa

1968an, Euskaltzaindiak ortografia batua lantzeko gomendioak eman zituen, beldurrez bezala-edo («ondo ikusiko omen lukee-

la»), Arantzazuko erabakietan. Oso gutxi zen euskara irakatsi nahi genuenontzat, baina, bestalde, izugarria izan zen, behingoz, zer eta nola idatzi markatzen hasi baitzen. Aditz laguntzaile batuaren proposamena, berriz, artean ere dantzan zebilen bi eredu nagusiren artean. Kontua da, alfabetatzenahiz euskalduntze-jarduneko gau-eskolan genbiltzala, 1970eko apirilean gertakari garrantzitsu bat izan zela euskalgintzan. Batasunaren alde lanean ari ziren idazleek bere egin zuten Gabriel Arestik eta Xabier Kintanak batasunerako prestatutako proposamena (oinarrizko proposamen xumea), *Batasunaren kutxa* izenekoa (Aresti eta Kintana 1970), eta hala sinatu zuten, Baionan, 1970eko pazko igandean, eta Eibarren, maiatzaren 1ean. *Batasunaren kutxan* bildutako proposamenak proposamen zehatzak zituen atal hauetarako: ortografia, deklinabidea, aditz laguntzailea (bi aukera eman zituzten: gipuzkera osotua eta lapurtera), aditz trinko gutxi batzuen hasiera eta lehen hiztegi bateratua (5.810 hitz). Argitalpenaren hitzaurrea Patxi Altunak, Txillardegik eta Gabriel Arestik sinatu zuten.

Baionan, Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako idazleek eta garai hartan Hegoaldean sartu ezin ziren beste idazle batzuek sinatu zuten, eta Eibarren, maiatzaren 1ean, beste hainbat idazleek eta oso idazle izan gabe ere alfabetatze-lanetan sartuak genbiltzanetako batzuek. Gerora esan izan den moduan, mugimendu hura ezinbestekoa eta funtsezkoa izan zen Euskaltzaindiak euskara batuaren ildoan pausoak ematen jarraitzeko.

Hain zuzen ere, Joxe Mari Aranburu eta Jaxinto Fernandez Setien ere ageri dira libu-

ru horren sinatzaileen artean, 15. orrialdean. Ni neu ere agertzen naiz, baina, egiari zor, haiek sinadura ezagutza osoz eman zuten arren, nire orduko sinadurak hizkuntzaren ezagutza eta irizpidea baino gehiago lanerako eredu baten beharra aldarrikatu zuen. Ikasgelan sartu eta berehala ikusten genuen erabakitako forma jakin, zehatz eta estandarren beharra. Bestela ez zegoen amaren seme eta alabarik zerbait zehatzik irakats zezakeenik. Hala ere, esan beharra dago urte gehiegi igaro zirela gure gau-eskoletan eta orduko ikastoletan Euskaltzaindiak gai batzuetan forma zehatz eta jakinak erabaki zain.

Han izan nuen aukera Hiazintok euskararen arloan gehixeago ezagutzeko. Eibarko biltzarra mugitu samarra izan zen, baina Hiazintok, Joxe Marik eta beste kide langile eta prestatu batzuek tentu eta sen on handiz eutsi zioten biltzarraren leinari, beste askorekin batera (gogoan ditut, halaber, han ezagutu nituen Patxi Altuna, Imanol Laspiur, Serafin Basauri, Kepa Enbeita eta gisako irakasle eta alfabetatzaile handi, trebe eta zorrotzak).

Zalantzarik handiena, une hartan, aditzak (laguntzaileak bereziki) sortzen zuen batasunzaleen artean ere. Horregatik, proposamenaren egileak ere (lapurteraren erroen aldekoak), artean bederen, aditz laguntzailearen eredu bakarra proposatzerara ausartu ez, eta bi proposatu zituzten, liburuan agertzen den moduan: aditz-erroa hobeto gordea zuen lapurteraren eredia eta aditz-erroa galduagoa zuen gipuzkera osotua: *dauzkizugul/dizkizugu* ereduak, alegia. Geroago, Euskaltzaindiak gipuzkera osotuaren aldeko hautua egin zuen, Mitxelena-ren ildotik (*dizkizugu* hobetsi zuen). Kon-

promisoari zintzo heldu zion Hiazintok: hitzmate haren ondoren, Euskaltzaindiak azken erabakia hartu zuen arte, lapurteraren erroko proposamena erabiltzen zuen (*dauzkizugu* eta gisakoak) —meza ematean, adibidez—, liburu eta testuetan bestelakoak agertu arren. Hura prest zegoen, beste asko ez bezala, bere ustez erro oneko batasun zorrotz eta zuzena egiteagatik bere aditz naturalak aldatzeko eta berriak hartzeko, eta baita herritarrei irakasten saiatzeko ere.

Euskaltzain urgazle

Aipatu beharra dago, halaber, 1966an euskaltzain urgazle egin zutela, Manuel Lekuona euskaltzainburuaren deia eta Joxe Migel Barandiaranen erreguaren ondorioz (Aranburu 2015: 63 eta ondorengoak). Beraz, Euskaltzaindiaren jardunak barrutik ezagutu eta bizi izan zituen. Zalantzarik ez da noski esateko Hiazintoren eta haren gisakoen bultzada ezinbestekoa izan zela 1968an Rikardo Arregi zenak eskatuta Euskaltzaindiak antolatutako alfabetatze-kanpaina bat egin zedin ere, eta, zer esanik ez, baita euskara batuaren lehen arauen hautua egin zedin ere. 1968tik 1978ra Euskaltzaindiak euskara batuaren arloan egindako lana eta hartutako erabakiak Hiazintori eta haren antzeko bultzatzaile eta langileei zor zaizkie hein handi batean. Horren froga bat gehiago da 1980ko uztailaren 1etik 8ra Israelera egindako bidaia, Imanol Berriatua euskaltzainak antolatuta. Zenbait euskaltzain oso, urgazle eta irakasle elkarrekin joan ziren Israelera, hebreera berpizteko miraria nola gauzatzen ari zen ikustera. Hiazintok ere parte hartu zuen bidaia hartan. Euskal Herriko 50 bat

lagun izan ziren guztira, eta, besteak beste, hebreera ikasteko barnetegiak (*ulpanak*) eta nekazaritzako kooperatibak (*kibbutzak*) bisitatu zituzten.

Lazkaon, Goierri eta Euskal Herrian jardunean

Baina Hiazinto ez zen mugatu elizako egin-kizunak bete, katekesian jardun, orduan oso biziak ziren parrokiako eliztarren eta apaizen mugimenduak jarraitu eta ilunabarrean alfabetatze-eskolak ematera. Hemen aipatu soilik egingo dut, baina ezinbestekoa da ikastolen inguruan egindako lana aipatzea ere (Aranburu 2015: 77 eta ondorengoak). Ordurako, 1963an, guraso batzuekin bat eginda, Lazkaoko San Migel parrokia-ikastola sortua zuen, Goierriko lehenengoa, baina ez zen konformatu hura sortze hutsarekin. Haren kezka nagusienetakoa izan zen beti euskarazko ikasmaterialak sortzea, ikasmaterial horiek euskaraz lantzea erdaraz eskolatutako irakasle euskaldunekin, gazte euskaldunak eta irakasleak euskaraz trebatzea, ikastolako umeak euskara erabiltzen eta euskaraz bizi-tzen ohitzea, gurasoak euskaraz alfabetatzea, eta abar. Horregatik, lehen aipatutako alfabetatze horien garaian, adibidez, Goierriko ikastoletako irakasleei eskolak ematen zizkien, ilunabarretan, Beasainen (Alkartasuna Lizeo zaharrean), Joxe Mari Aranbururekin eta beste batzuekin batera, edota haurrentzako eta ikasleentzako udalekuak antolatu eta haietaz arduratu zen buru-belarri hainbat urtetan, gurasoekin batera, edota Gordailu argitaletxea eta denda sortu zituen, euskarazko ikasmaterialak sortzeko eta saltzeko, Donostian, 1969an. Gordailuren inguruan

osatu zen lantaldeak harreman handia izan zuen pedagogia-arloko Escola Catalana taldearekin eta bereziki orduko ikastoletako Irakasle Elkartearekin.

Hori guztia eta gehiago egiten jardun zuen 1963tik 1980 ingurura arte. Euskalgintzako hainbat diziplinatan jardun zuen, eta esaldi gutxi batzuetan laburbilduko nuke arlo horretan zeukan filosofia:

- Euskaraz bizi ahal izateko, euskaraz falta zen edozein jakintza-arloko materiala sortu. Berak eta beraren ingurukoek sor bazezaketen, sortu; baina, ezin zutenean, gaztelaniatik edo erdaretatik euskaratu eta, ondoren, argitaratu.
- Euskal Herriaz, Euskal Herriko gaietzin beste gaietzin idatzi, Euskal Herriko ikuspegiarekin, euskaraz. Halako gaiak eta beste batzuk ez utzi espainiar eta frantsesen irizpideen eskuetan. Orduan ez ezik, gaur egun ere, gure irakasmunduko arazo larrienetakoa da ikasmaterialena. Euskaraz argitaratu arren, 2015ean argitaratutako ikasmaterialen % 33,3 soilik izan zen hemengo argitaletxeek sortua (Torrealdai 2016: 133 eta ondorengoak).
- Euskaraz bizi ahal izateko falta zen funtsezko edozer sortu. Horrek eragin zion noski 1963an Lazkaoko San Migel ikastola sortzeko adorea, edota ikastola-orduak nahikotzat jo ez eta berehala udako opor luzeetarako euskarazko (ez ingelesezkoak, orain batzuek egiten duten bezala) udalekuak antolatzea.

- *Ezina ekinez egina* esaldia edozein arlotan erabili. Gauza bat da ideia pentsatzea eta beste bat traba guztien gainetik —eta, askotan, traba handien gainetik— hura gauzatzea. Hiazinto ez zen gelditzen hura gauzatu arte.

Luza litezke atalak, baina, nire ustez, adierazi dut haren bizi-filosofiaren muin nagusia.

Muturrekoak

Ekintzaile handi guztiei gertatzen zaien moduan, Hiazintok ere jaso zituen muturreko batzuk bere proiektu eta eginkizunen arloan, eta haietako bi bederen ezin dira aipatu gabe utzi:

- 1969an, San Migel ikastola itxi zuten, Oltra Moltó gobernadore zibilaren aginduz. Kolpe itzela izan zen berarentzat eta ingurukoentzat. *San Benito komenentziatzko ikastola* izen eta jardun berriarekin ireki behar izan zuten berriro, Lazkaon (Aranburu 2015: 92 eta ondorengoak). Horrek eztabaida handiak sortu zituen herrian garai hartan.
- 1972an, parrokiako katekesi-eginkizunak kentzen hasi, eta, apurka-apurka, azkenerako Lazkaomendiko ermitako meza ematera baztertu zuten (Aranburu 2015: 58). Era berean, biografian esaten da 1985ean parrokiatik alde egitera behartu zutela (67. or.).

Baina hemen ez dut arlo hori gehiago sakonduko; haren bizitzako xehetasun gehia-

go jakin nahi dituenak jo dezala aipatutako biografiara edo azterketa sakonagoetara.

Hiazinto idazle, itzultzaile eta argitaratzaile

Oso zaila zait haren lanak osotasunean aipatzea, baina esanguratsuenak bederen aipatuko ditut (Aranburu 2015: 141 eta ondorengoak).

- *Boga-boga* kantu-liburua. Donostiako Apaizgaitegian argitaratu zen, 1959an, eta arrakasta handia izan zuen. Geroztik, hainbat aldiz berrargitaratu da. Hiru apaizgaik egin zuten: Boni Urkizuk, Iñaki Ugaldek eta Hiazinto Fernandorenak (Aranburu 2015: 37).
- 1965ean, *Jakin* aldizkarian, «Pertonaren aukeramena eta *Pacem in terris*» artikulua argitaratu zuen, eta Elizaren aire berrien ildoan kokatu zen.
- 1969an, *Ikastola hiztegia* argitaratu zuen, berak sortutako Gordailu argitaletxean. Argitaletxeko sailen arduradun izan ziren Hiazinto bera, Antton Amondarain eta Jose Luis Lizundia, eta, gainera, idazle-talde bat ere bildu zuten: Jesus Mari Arrieta, Mikel Ugalde, Jon Gortari, Daniel Ibargoiti, Daniel Zulaika, Jesus Altuna eta beste batzuk (Aranburu 2015: 142-143).
- 1972an, lau liburu idatzi eta argitaratu zituen Gordailun: *Onddoak*, *Ogia*, *Erleak* eta *eztia* eta *Olentzero*.

- 1975ean, 13 liburu argitaratu zituen, Gordailun: *Durangeldea, Goiherri, Iparragirre, Jose Paulo Ulibarri, Euskal Herriaren historia I, Haitzuloetako euskal gizona, Laborantza, Arrantza, Industria, Janariak, Edariak, Ugaztunak, Narraztiak* eta *Ur-lurtarrak*. Lehen aipatutako taldeak lan emanorra egin zuen, eta, tartean, Hiazintok, noski. Geroago, beste batzuk ere argitaratu zituen Gordailuk: *Baztan eta Bidasoa, Gasteiz, Orreagako guduak, Burdina eta altzairua, Intsektuak, Euskal Herriaren historia II*, etab. Historiakoak idazten bereziki parte hartu zuen Hiazintok.
- Gordailuk Irakasle Elkartarekin lan egin zuen, eta material didaktikoak eta jostailuak ere sortu zituzten. Haurride izeneko dendaren bidez ezagutu ziren materialok, eta, bolada batean, arrakasta ere izan zuten merkatuan, besteetan erabat desberdinak baitziren.
- Irakasle Elkartearen *Idazketa hiztegia* ere argitaratu zuten, 1974an, Hiazintok eta Antton Amondarainek, beste batzuen laguntzarekin.
- *Sikomotrizitate beziketa*. 1971. Rosa Sensaten liburua itzuli zuen Hiazintok euskarara.
- 1971n, halaber, *Euskal Herriko historiaren laburpena* argitaratu zuen Donostiako EKT taldeak. Fernando Zabalak eta J. A. Iglesiasek idatzi zuten, eta Hiazinto Fernandorenak, Xalbador Garmendiak eta Andoni Sarriegik euskaratu.
- Halaber, Valentziako Gaisak argitaratutako Walt Disneyren entziklopedia *Gauza harrigarriak* izeneko entziklopedia moduan argitaratu zen euskaraz, eta *Txorien gauza harrigarriak* izeneko alea Hiazintok euskaratuta atera zen.
- Schiller-en *Gilen Tell* liburua ere Hiazintok euskaratu zuen. Suitzaren historia eta mitologia nahasian dituen da. Gero argialetxearen Kimu sailean argitaratu zen, 1979an.
- «Gordailu eta euskal pedagogia» artikulua argitaratu zuen Hiazintok 1979an (*Jakin* 11). Gordailuz, pedagogiaz, irakaskuntzaz, ideologiez, barneko eta kanpoko arazoez eta euskalgintzan beti arazo izan den ekonomia-aziaz dihardu.
- *Zuberoa Aro Modernoan* argitaratu zuen Gaiak argialetxean, 1995ean. Zuberoako historiari Christian Despletetik idatzitakoa frantsesetik itzuli zuen Hiazintok. Liburu horretatik aukeratutako zati bat argitaratu zuen EIZIEk *Itzulpen Antologia III* liburuan, Hiazinto beste itzultzaile batzuekin batera ohorezko bazkide izendatu ondoren egindako argitalpenean.
- *Gure baserriak. Hernani*. 2003an argitaratua. Egileak: Hiazinto Fernandorena Setien eta Maria Jesus Iartza Martiarena (Aranburu 2015: 163).
- Iritzi-artikuluak argitaratu zituen *Aiurri* aldizkarian, 2006tik 2011ra bitartean (Aranburu 2015: 164).

- Jaidura izeneko itzulpen-taldea ere sortu eta eragin zuen, beste batzuekin batera, Donostia aldean.
- Aipatutako lanez gainera, hainbat itzulpen-lan eta bestelakoak ere egin zituen Hiazintok bere bizitzan zehar, hainbat talde eta enpresarentzat. Baita, besteak beste, Etor, Sendoa, Erein eta Gaiak argitaletxeentzat ere. Bereziki landu eta itzuli zituen geografiko, historiako eta erlijioiko idazlanak.

Aipatu dudan moduan, entziklopedia, historia, geografia eta gisako lan handien atalak euskaratzen askotan jardun zuen Hiazintok. *Euskal Herriaren historiaren laburpena* euskaratzean, adibidez, jardunez gainezka zebilela-eta, epe-arazoren bat tarteko, laguntza eskatu eta neuk ere lagundu nion itzulpen haren zati bat egiten. Horregatik agertzen da nire izena ere liburu horretan, eta orduan izan nuen hirugarren aldiz zuzeneko harremana berarekin.

Hernaniko Udalean itzultzaile

Bere biografian agertzen denez, 1981etik 1994ra jardun zuen Hernaniko Udalean itzultzaile-lanetan (Aranburu 2015: 169. or. eta ondorengoak)¹. Aurretik, ordea, Martuteneko Itzultzaile Eskolan aritu zen, lehenaz gainera itzulpen-ikasketa bereziak egin eta profesionalki prestatzen. Ni neu antzeko eginkizunetan aritu nintzenaldi horretan, Beasaingo Udalean, eta, tarteka,

bileraren batean edo bestean topo egin genuen. Laugarren aldiz izan nuen haietan zuzeneko harremana berarekin. Espainierazko administrazio-idazkera, beste askori legez, okaztagarria gertatzen zitzaion, barrokotasunarengatik, eta, itzulpenetan eskarmentu handia zuen arren, amorrua zion nahitaez halako estiloan euskaratu eta testu konplexuegiak sortze horri. Berak soilago eta ulergarriago idaztea zuen helburu, eta horri eusten zion beti. Ez zuen alferrik jardun hainbeste urtetan irakaskuntzaren inguruko pedagogia-lanak argitaratzen. Horretan bazuen talentua eta eskarmentua. Administrazioeko espainierazko hizkera, hain zuzen, horren aurkakoa zen, eta esango nuke gaur egun ere hizkera hori halakoa dela hein batean. Madrilen bertan ere, espainieraz beste era batera idazteko mugimenduak aspaldixko sortuak dira, baina ez dakit administrazioan eta epaile, legegile eta abokatuen artean arrakastarik izatera iritsi diren.

Ez naiz hemen errepikatzen hasiko Hiazintoren biografian Hernaniko alkate batzuek, zinegotziek eta bestek esandakoak. Liburuan daude, irakurri nahi dituenarentzat. Baina liburuko izenburuak aipatuko ditut, eta horrekin nahikoa dela deritzot.

- Nortasun handiko pertsona
- Itzultzaile ofzios baina euskara ipar
- Funtzionarioa ote?
- Espiritu kritikoa
- Besteak arrazoiz eta pazientziaz kontzientziaz
- Ekimen sozialetan ekintzaile, etab.

1. Liburu beraren beste atal batean dio 1985ean hasi zela (58. or.), baina, nire ustez, 1981eko data da zuzena.

Aipamen horiek argi eta garbi ematen dute, nire ustez, Udaleko eta herriko lanaren inguruan izandako jarreraren berri.

Beste zaletasun batzuk

Zaletasunen artean nagusienetakoa erlezaintza izan zuen, eta hartan ere jardun zuen (Aranburu 2015: 174 eta ondorengoak). 1972an, *Erleak eta ezitia* idatzi eta argitaratu zuen, eta haiekiko ezagutza ere ukaezina zuen. Baina, ezagutza ez ezik, erleak ere eduki zituen, eta, 1987tik 2003ra bederen, Gipuzkoako Erlezain Elkarteko bazkide izan zen. Gainera, artikuluak idatzi zituen *Erlazantz*an, elkartearen aldizkarian. 500 bat bazkide zituen elkarteak; hango lehendakari ere izan zen, eta aldizkariari bizitasuna eman zion bere garaian. Nikaraguan eta Malin ere izan zen, eta, bidaiaria haietan, erleen kontuez eta erleekin ere jardun zuen. Horretan ere, ordea, arazoak sortu ziren; bi elkarte eratu, eta interes desberdinak gurutzatu ziren, eta desadostasunak sortu ziren ezti motei buruzko zehaztasunetan, baina eten nagusia Foru Aldundiaren diru-laguntzen banaketaren ondorioz sortu zen.

Beste zaletasunetako bat bidaiatzea izan zuen, eta, Nikaragura eta Malira joateaz gainera, Josu Iztuetaekin Saharan eta Laponian ere izan zen, 1983an eta 1984an (Aranburu 2015: 186 eta ondorengoak).

Aipagarria da, halaber, Dionisio Amundarainek biografia horretan idatzitako atal bat: *Hiazinto Fernandorena, adar ugaridun arbola* (Aranburu 2015: 204 eta ondorengoak). Lurrarekiko eta naturarekiko lotura, baserritar, apaizgaitegiko ikasle, Lazkaon apaiz, katekesi-irakasle, ikastolaren eta uda-

lekuen sortzaile-bultzatzaile, leku-izenen proposatzaile, Herri Gaztedin jarduna, laborantzaz kezkatua, euskal idazle, itzultzaile eta argitaratzaile, etab.

Oker ez banago, 1985az geroztik Urnieta jaioterrian bizi izan zen, harik eta iktus batek eman eta, ezgaitu samar geldituta, azken urteak Andoingo San Joan Bataiatzailearen egoitzan igaro dituen arte.

Omen-ekitaldiak

Urnietako Udalak herritar batzuk omendu zituen 2014ko irailaren 29an; tartean, Hiazinto. Hala ere, oroigarria haren anaia Joxe Marik jaso zuen, eta berari hurrengo egunean eman zioten eskura agintariak.

2014ko abenduaren 13an, Seguran estreinatu zen *Ez dira aspaldiko kontuak* antzezlan, Lurdes Imaz herritarrak idatzia, eta pertsonaietako batek Hiazinto du izena. Bera hitzemana zen antzerkian parte hartzeko ere, baina osasunak ez zion aukerarik eman horretarako. Hala ere, aipamen berezia izan zuen.

Omenik onenetakoa, nire ustez, Pello Joxe Aranburuk eta haren lankideek 2015ean argitaratutako biografia da, artikulua honetan behin eta berriz aipatu ditzuedana eta egileenez gainera Hiazinto ondo ezagutu zuten askoren elkarrizketak eta iritziak dakartzana.

Hiazinto, Jacinto Fernandez Setien izatetik abiatu eta Jaxintotik pasatuta, Hiazinto Fernandorena Setien izatera iritsi zen bizitzan zehar. Baina ez zituen izen-deiturak soilik aldatu euskal itxurara. Bere bizitzan zehar aldatuz joan zen bera ere, eta euskaldun osoago bihurtzen, eta bere bizitzako

unerik txikiena ere ez zuen baztertu horretarako: Jacinto benetako Hiazinto izatera iritsi zen, baina ez bera bakarrik, modu isolatuan; lan nekagaitza egin zuen bizitzan zehar inguruan izan zituen guztiak ere euskal nortasunez janzten eta euskaldunago

egiten. Gainera, euskaraz eta euskaldun moduan bizi ahal izateko, garaian garaiko baliabideak sortzen saiatu zen. Eta, horregatik, nik behintzat eskerrak ematen dizkiot, bihotzetik. Egun handira arte, Hiazinto!

BIBLIOGRAFIA

- Aranburu Ugartemendia, Pello Joxe. 2015. *Jaxinto, ikastolen lemazain (Hiazinto Fernandorena Setien)*. Mitxelena arte grafikoak, Astigarraga.
- Aresti, Gabriel eta Kintana, Xabier. 1970. *Batasunaren Kutxa. Euskal Idazleen Elkarte. Mitxelenaaren promesaren pean*. Lur argitaletxea.
- Sarriegi Eskisabel, Andoni. 2000. *Alfabetatzearen Hastapenak Goierriin. Aurresaioak eta 1967tik 1975erakoak*. Goierriko Euskal Eskola K. E.
- Torrealdai, Joan Mari. 2016. «Euskal liburugintza, 2015». *Jakin* 217. zk.

Resumen

En este artículo sobre Hiazinto Fernandorena, el autor da cuenta, por una parte, de sus encuentros con él en torno a la actividad cultural vasca y, por otra parte, de la evolución sufrida por ese tipo de actividades culturales a lo largo de sus encuentros. Tras informar acerca de una biografía de Fernandorena, distingue cuatro etapas en su relación: la campaña de alfabetización de 1968, el libro *Batasunaren kutxa* [El arca de la unidad], su trabajo común en el ámbito de las traducciones de tema histórico y su período como traductores municipales. Se refiere, además, a los trabajos de creación y desarrollo realizados por Fernandorena en el campo de las ikastolas, la producción de textos y materiales de enseñanza en euskera, sus quehaceres en la editorial Gordailu, y diversas aficiones como la apicultura y los viajes.

Résumé

L'auteur de cet article nous parle, d'une part, des rapports qu'il a eus avec Hiazinto Fernandorena tout au long de sa vie, dans le cadre du travail réalisé en faveur du développement et de l'expansion de la langue basque, et d'autre part, il nous informe sur l'évolution de ce travail de promotion de l'euskara. Il mentionne également une biographie publiée sur Hiazinto, ainsi que quatre de leurs rencontres, particulièrement marquantes, liées à ce travail : la campagne d'alphabétisation de 1968, le livre *Batasunaren kutxa*, la traduction en euskara, réalisée en commun, d'un ouvrage d'histoire et la période où ils ont travaillé comme traducteurs dans des mairies. En outre, il nous présente les travaux de création et d'approfondissement réalisés par Hiazinto dans le domaine des ikastola, sa production de textes et de matériel didactique en euskara, la maison d'édition Gordailu, sans oublier d'autres sujets d'intérêt, tels que l'apiculture et les voyages.

Abstract

In this article, the author not only recounts his encounters with Hiazinto Fernandorena during the development of the Basque language, but also discusses the evolution of that development. In addition to introducing a biography of Hiazinto, he also mentions four specific encounters with him: the literacy campaign of 1968, the book *Batasunaren kutxa*, the cooperative work of translating history into Basque, and the period of municipal translators. Additionally, he discusses Hiazinto's creation and development of works for schools, and the production of texts and teaching materials in Basque, as well as the publishing house Gordailu, and Hiazinto's other avocations, such as travel and bee-keeping.